

Noaia!!

www.noaia.com



Yoga, erditzea prestatzeko ariketa gomendagarria



Sagardoaren
egun handiena

Erraustegian sortuko diren sustantziek ze ondorio dakartzate?

"..Kunbriako Erraustegiaren (Erresuma Batua) inguruko populazioari buruzko azterlanean garbi ageri da zer igoera izan duten **fetuaren mutazio eta malformazioek**. Zehazki esanik, bizkarrezur bifidoaren %17 kasu gehiago eta %12 bihotz arazo gehiago."

Iturria: NewCastleko Unibertsitatea, Erresuma Batua. 2003ko iraila

Osasun-tekniko batzordea



Txiriboga



Ondo pasa Sagardo egunean!!



Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra

943 372 679

649 435 470

kale nagusia 47, behea A

Rafa
iturgindegia



- Kristaldegiko lanak
- Kristalezko mahaiak
- Segurtasun beirak
- Kristalezko luzeroak
- Klimailt

astegunetan: 10:30 -13:30 eta 16:30 -19:30

larunbatetan: 10:00 - 13:00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

Albistea iruditan !!

Gizon proba San Ixidro egunean

Jakinmin handia piztu zuen. San Ixidro egunean, Orio eta Usurbil aldeko gazteen arteko gizon-proba iragarrita zegoen. Gizon-demak irudi eder asko utzi zituen, tartean, aukeratu dugun hauxe. Antza denez, laster errepikatuko da bi taldeen arteko norgehiagoka, ekainaren 28an hain zuzen. San Ixidro eguneko frogak modukoak izan zen. Ekainaren amaieran, beraz, berriz neurtuko dituzte indarrak.

Pilota partidak ere izan ziren maiatzaren 15eko ospakizunetan. Eta ohi bezala, meza nagusia eta gero Andatzpekoak hamaiketakoak banatu zuten frontoi inguruan bildu zirenen artean.



EKAINAREN BUKAERAN BERRIZ EGINGO DA GIZON-DEMA SAIDA.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AZKEN OSOKO BILKURAKO ERABAKIAK **5. OR.**

YOGA IKASTAROA SANTUENEAN **8. OR.**

HERRI GALDEKETA, AURRERA **10. OR.**


UDAJOLASEN IZENA EMATEKO GARAIA **11. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

943 69 68 52 · 620 800 186



AITOR LANDALUZE

Magia pixka bat

Eguzkia lainoak euria eta euria eta euria, lurra sagastia, arbola: sustriak enborra adarrak hostoak kukulu berdeak pinport gorriak eta loreak, petaloak sepa-loak estigma estiloak eta anterak polenakin. Haizea erleak ... ai erleak udaberrian!

Taninoa eguzkia eta euria. Azala mamia zuztarra bihoztza haziak eta txortena. Txalaka, gezamina mozolua erre-zil manttoni azpuru-garratza patzola ... berdea horia gorria arrea, garratzak gozoak mikatzak, txikiak eta handiak, txoroak lehorrak eta bustiak, sagarrak.

Heldu eta erori. Kizki-kizki kizki-kizki, kizkia eskua saskia zakua karga metak. Hautsi pisoia jo eta jo eta jo ... txalaparta matxaka.

Ilbehera, hotza. Kantalerak sarea horia patsola giltza urkatxua karraka ardatza dolarea, arotza haritza edota aluminioa, patsa, beratze. Zanutu. Barrikote barrika buko. Leioa beheko zuloak txotxa kardia, burua; uztaik goiko zuloa eta ondo, kupela. Irakinaldi bat hartzidura zakarra eta zaratatsua eta isila barea luzea bigarren

hartzidura. Zakarrak eta aparrak. Muztioa, zizarra? Ama, Sagardoa! Pitarra gasifikatua naturala ozpina pattarra.

Lehortasuna gazitasuna gozotasuna garbitasuna usaina kolorea gorputza.

Txotx! Ziria txinparta mojon tortilla bakailaoa txuleta gazta menbriloa eta intxaurrak, bota bertsua.

Klin-klin-klin Kristala botila kortxo eta etzan.

Kartoi plastiko kaxak fenwich-a kamioia eta maiatzeko azken aurreko igandea Usurbilen. Baso-saltzaile politik, basoak logotipokin edo gabe, frontoia plaza elizaren horma etxeetako balkoiak izarak zuri eta gorri? Talogile zein pintxogileak material saltzaile eta egileak. Do re mi fa sol la si trikitalarik pandero-jole bertsolari txapeldunak zapidunak eta abar luze bat. Petrilla ikustezina postuak botatzaileak. Botila hartu, kortxo atera, besoa gora sagardoa behera, txinpartak eguzkipean zein euripean.

Azken finean denak sagardo baso baten ondoan sartzen dira, eta beste batean eta beste batean eta ... ez al da magia pixka bat?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Mikel Laboari herri omenaldia, maiatzaren 31n

Herri omenaldia egingo zaio Hatorren maiatzaren 31n, Usurbilen aski ezaguna zen eta bertan sarri ibili zen Mikel Laboari. Bertso, txalapartari eta aurreku artean, aurrerantzean bere izena eramango duen plaza inauguratuko da frontoi atzean. Kultur Aholku Batzordetik bultzatu da ekimena.

Txalapartariak, abeslariak, agurra... Omenaldi hunkigarria izango da, maiatzaren 31n Kaxkoan Mikel Laboari eskainiko zaiona. Laboak Joxe Luis Zumetarekin izandako harreman

estua agerian geratuko da. Hain zuzen, frontoi atzeko plazak aurrerantzean Mikel Laboaren izena izango du. Bertan gainera, eskultura bat jarriko da, lehiaketa bidez aukeratua. Guztia, Zumetaren frontoi atzeko muralari begira, bi artisten gertutasuna irudikatuz.

Zer adierazi Mikeli?

Inoiz esateko aukerarik izan ez, baina gelditu ohi da ezer esatekorik gure artetik joan den bati. Are gehiago, Mikel Laboa bada. Omenaldi egunean, sinadura-liburu bat zabalduko



FRONTOI ATZEKO PLAZAK MIKEL LABOAREN IZENA ERAMANGO DU.

da nahi duenak zerbait idatzi diezaion. Ordurako alde zurretik zerbait idatzirik prestatua izatea gomendatzen da.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa

Txaramuntoko alokairuko etxebizitzak zozketatu dira

Txaramuntun alokairura bideratuko diren hamabi etxebizitzak zozketan zein herritarrek parte hartuko duten zehaztua dago jada. Igaro den astean burutu zen ezohiko osoko bilkuran, onartu zein baztertutako herritarren zerrendak onartu zituen udalbatzak.

Dokumentazio osagarria eskatzeko aurkeztu den alegazio bakarra aintzartoz hartzea erabaki ondoren, behin betiko onartu ziren maiatzaren 12ko ezohiko osoko bilkuran, Txaramuntoko alokairuko hamabi etxebizitzetako onartu zein baztertuen zerrendak.

EAKo zinegotziak abstenitu zirela eta PSE-EEkoa bilkuran ez zegoela kontuan izanda, gainerako udal ordezkariak udal proposamenaren alde bozkatu zuten.

Gazte asko zerrendan

Alokairuaren bidea jorrazteko beharra azpimarratu zuen, Iñaki Illarramendik (EAJ-PNV). Hartutako erabakiarekin pozik zegoela zioen, behar dutenei irtenbidea

bilatu zitzaie irizten baitzion.

Aralartik ere, Joxe Ramon Furundarenak alokairuaren alde egin dutenen apustua azpimarratu zuen, Txaramuntoko etxebizitzetan izena eman zuten gazte andanarena bereziki. Zentzu horretan pauso gehiago eman behar zirela gaineratu zuen.

EAtik aldiz, Salome Portuk behar berezietarako etxebizitzak direla kontuan hartuta, kezagarritzat jo zuen izena emandakoen herritar kopurua.

Zozketa egin da

Prozesua nahi baino gehiago luzatu dela aipatu zen udal gobernu taldeetik. Horregatik, osoko bilkuran bertan diktaminatu gabe zegoen testua bozkatea proposatu zuten, jakinik alegazio bakar bat aurkeztu zela, dokumentazio osagarria eskatuz. EAKo udal ordezkariak izan ezik, eta PSE-EEko zinegotzia udalbatza aretoan ez zegoela kontuan hartuta, gainerako udal ordezkariak aipatu puntua eguneko gai zerrendan txertatzea bozkatu zuten lehenik.

Zozketa pasa den asteazkenean egin zen Sutegin.

Hondakin kudeaketari buruzko hitzarmenera batuko da Udala

Hondakinak gutxitu, birziklatu eta berrerabiltzea sustatu asmoz, hondakin kudeaketaren alorrean elkarlana bultzatuko du Eusko Jaurlaritzak eta Ecoembalajes España SAK sinatua zuten hitzarmenak. Udala, ordezkari propio bezala atxikiko da orain hitzarmen horretara.

Hondakin kudeaketan elkarlana bultzatu asmoz, Eusko Jaurlaritzak eta Ecoembalajes-ek sinatua zuten hitzarmenarekin bat egingo du Udalak. Ondorioz, aurrerantzean, Udalak ordezkari propioa izango du hitzarmen horretan. Maiatzaren 12ko ezohiko osoko bilkuran, gobernu taldearekin batera, Aralarkoek babestu zuten hitzarmena.

EAKo udal ordezkariak aurka bozkatu zuten. EAJ-PNVko zinegotziak abstentziora jo zuen. Salome Portuk (EA) hondakin bilketari buruzko datuak eskatu zituen. Eta Iñaki Illarramendik (EAJ-PNV) datu ekonomikoak. PSE-EEko zinegotzia ez zen udalbatza aretoan egon.

Hauteskundeetarako mahaikideak zozketatu dira

Maiatzaren 12ko ezohiko osoko bilkuran datorren ekainaren 7an burutuko diren europar parlamenturako hauteskunde egunerako mahaikideen zozketa egin zen. Martxoaren 1ean, EAEko hauteskunde eguneko mahaian egotea egokitu zitzaizen herritarrek zozketatik kanpo utzi ditu Udalak.



AZKEN OSOKO BILKURAN ONARTU ZIREN ZOZKETA GARAIAK KONTUAN HARTU DIREN ZERRENDAK.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Zorionak



Oraingoan herri guztia edo hobeto esanda ia guztia (batzuk ez baitaude honen alde) zoriontzeko asmotan nator. Zorionak zabor bilketarekin lortzen ari garen emaitzengatik eta baita zorionak honen inguruan lanean zabilatzateno, lan handia egiten ari baitzarete gaikako bilketaren inguruan. Lehenengo hilabetean gutxi gorabehera %76a birziklatu zen. Oso emaitza ona da, kontuan harturik, lehen gutxi gorabehera %20a birziklatzen zela. Hala ere herrian talde bat honen guztiaren aurka agertu da, telebistan TVE1eko "España Directo" programan ere erreportaje txiki bat egin zuten honen inguruan sekulakoak esanez sistema honen aurka. Nik ez dakit zer arazo duten honen aurka, izan ere azken finean guztia gure hobe beharrerako baita, edo erraustegia gure etxe ondoan jartzea nahi al dute?

Beno, atez-ateko bilketa alde batera utziko dut, izan ere, Sagardo Eguna gainean baitugu eta honen inguruan ere aipamen txiki bat egin nahi dut. Aurten jada XXVIII. Sagardo Eguna ospatuko da Usurbilen, egun handia usurbildar guztiontzat. Ea eguraldiak laguntzen duen denok jai



honetan ondo pasa ahal izateko. Ondo pasa Sagardo eguna! Txotx!

Bestalde hilabete honetan ere San Ixidro eguna ospatu da, hilaren 15ean hain zuzen. Egun hau baserritarrentzat egun handia da eta, nola ez, Usurbilgo baserritarrek ere ospatu dute aurten San Isidro eguna. Zorionak baserritar guztioi!

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Santuenean sagardo usaina



Atez-ateko bilketaren udaberri honetan Aezin ahaztu dagoeneko Sagardo Eguna dugula ate joka. Urtero bezala maiatzaren hirugarren igandean, barkatu azkenaurrekoan, Sagardo Eguna Usurbilen.

Zalantzarik gabe bai herriko kaxkoan edota auzoetan bizi diren usurbildarrentzako urteko egun garrantzitsuenetarikoa. Nahita ere oso zaila da egun honetaz ez jabetzea herrian sortzen den ilusioa toki guztietara zabaltzen baita.

Lan asko egin behar da antolakuntza aldetik, bai egun berean eta aurreko hilabeteetan ere baina, zorionez oraindik gogoz eusten zaio lan horri bertako nahiz kanpoko jendeak gozatzeko. Ea aurten kanpotik ez garen bustitzen eta denon laguntzarekin Sagardo Eguna alai eta polit bat izaten dugun.

Bestalde, gure auzoko jaiak ere ez daude oso urruti, batez ere antolatu behar dutenentzako. Laster hasiko dira aurtengoak martxan jartzeko bilerak egiten, beraz, proposamenik baduzu adi egon.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Badator... Sagardo Eguna!

Urtero bezala iritsi zaigu Sagardo Eguna. Maiatzaren 24koa, hogeita zortzigarrena, egun zoragarria izango da beste behin, usurbildarrentzat. Goizen goizetik festa giroa nagusitzen da gure herrian. Kanpotarrak ere bisitan izaten ditugu jai giroan murgiltzeko prest. Sagardo basoa hartu eta plaza-ara, gure edari gozoa dastatzera, horixe igande honetako askoren plan nagusia. Eta sagardoaren kalitatea, plazako giroa, aspaldi ikusi gabeko laguna agurtzea... berriz, koadrilen arteko elkarrizketarako aitzakia nagusiak. Denok gara sagardo kontuetan aditu, urtean egun batez bada ere.

Eguna ziztu bizian pasatzen da, lagun eta festa giro aparta egoten baita urtero. Aurten ere, herritar batek baino gehiagok astelehena jai izango du, "ajeari" aurre egiteko.

Ea aurten eguraldiak laguntzen duen, ero samar baitabil azken aldia! Bapatean euria, kazkabarra, eguzkia... denetik pixka bat ez aspertzeko. Amaitzeko berriz ere gogorarazi; ondo pasa Sagardo Egunean eta animo datoren astelehenean!



ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Iritsi da, iritsi da...



A spaldi honetan gauza polit asko gertatu zaizkit eta horietako bat kontatzeko asmotan etorri natzaizue. Maiatzaren 15ean, ostirala, hainbeste desio nuen autobusa jarri zuten martxan, oso gustura nago.

Etxetik atera autobusa pasa baino bost minutu lehenago eta bideraino jaitsi. Segituan azaldu zen autobus berdea. Atea ireki eta barrura sartu nintzen. Txartela pasatzearekin batera ingurura begiratu nuen eta ez zegoela inor konturatu, gidaria baino ez. Lasai eseri eta begiak kristaletik urrunago begira nituela Lasarte aldera abiatu ginen. Kristalaren beste aldean jendea ikusten zen lanean, nahiz jolasean eta baita paseatzen ere. Baina, begiradak pertsona batengan joan zitzaidan, etxez etxe zebilen paper batzuk eskuan zituela, baita boligrafo bat ere. Jakina, gero konturatu nintzen errausketaren aurkako sinadurak biltzen ari zela, ahal ziren gehienak lortuko zituela espero dut. Konturatzeko iritsi nintzen nire helmugara. Berritoxartela pasa, gidaria agurtu eta nire bidea jarraitu nuen.

Egitekoak egin ondoren etxera bueltatzeko ere autobusa hartu nuen. Oraingoan ordea ez nintzen bakarrik bueltatu, beste gizon bat ere nirekin batera joan zen autobusean gida-



riaz gain. Gidariarekin hitz egiten ari ginela, honek esan zigun goiza pixka bat tristea izan zela, baina arratsaldea animatua izan zela. Honelakoa izan zen nire lehen bidaia autobus berdean.

Amaitzeko, esan, autobusa lortzeko egin diren esfortzuak etekina eman duela, eta nabari da hau lortzeko lan handia egin dela, batez ere Herri Batzarraren aldetik. Eta denei animatu nahi zaituztet garraio berde hau erabiltzera.

Mila esker, autobusa jartzearen alde borrokatu duzuenoi!

AGINAGA

M^ANGELES ARRUTI

Aginagan kintoak



Denok dakigu askotan zenbat kostatzen zaigun lagun zaharrekin elkartzea. Eguna joan eta eguna etorri eta konturatzeko urteak joaten dira.

Aginagan ordea eta lehen aldiz, Sekaño erregian 56, 57 eta 58ko kintoak elkartu ziren. Ez ziren ordea bakarrak izan. Hainbeste denbora zita egitekotan eta azkenean beste hiru kinto ondoan zituzten bazkaltzen, 63, 64 eta 65ekoak. Eta denak Aginagakoak! Ederki bazkaldu eta nahiko kontu esan ondoren, datorren urteko zitan ere pentsatzen jarri ziren. Beraz, aurten animatu ez direnak ea animatu eta datorren urtean denak elkartzeko diren.



KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Begietara

B i pauso atzera eman behar izan nituen... Pasa aurretik "begietara" begiratu behar niola, esan zidan. Egurdiko hamabi eta erdiak ziren eta ilobarekin batera etxe aldera gindoz bazkaltzera. Oinezko pasabide batean gertatu zitzaidan. Udaltzain bat zen atentzioa deitu zidana. Esan bezala eta pentsatu gabe, txintxo-txintxo atzera egin nuen. Barkatu – esan nion. Begietara begiratu eta gero eta bere baimenarekin, pasabidea gurutzatu genuen.

Gero erreakzionatu nuen. Baina, zergatik eskatu ote diot barkamena? Ze arau hautsi dut? Harritura nengoen. Noiztik begiratu behar zaio udaltzainari begietara? Arau berri bat al da?

Garai batean jasan behar izaten genuen autoritarismoaz gogoratu nintzen. Beti ere bien arteko alde nabarmenak alde batera utzita, badirudi uniformeak indar berezi bat ematen diola daramanari.

Hala ere, nire irudimena izango zela pentsatu nahi nuke, eta umeei zuzendu nahi izango zuela, nahiz eta umeek beraien inozentzia konturatu ere ez egin.



Yoga, erditze unea prestatzeko egokia

Arnasa sakon hartu, eta lasaitzea. Nork bere gorputza ezagutu eta kontrolatzea. Orainaz arduratu eta etorkizuna alboratzea. Denborarekin ugaritzen ari dira yoga klaseak. Santuenea auzo elkarteko egoitzan proba berri bat egin du, Irene Oyarzabal irakasleak. Haurdunaldiko garai bertsuan diren emakumeak yoga saioen inguruan bildu ditu. Ikasleen balorazioa ezin baikorra da.

NOAUA! Talde hau eskari bati erantzuteko edo proba moduan, nolatan sortzen da?

Irene Oyarbide. Ekimena neure lagunengana, Ainara eta Nereren artean hasi zen. Haiek bazekiten irakaslea naizela. Une ona zen yogarekin hasteko. Proba txiki bat egin behar genuen, eta azkenean, baita taldea osatu ere. Guztia esperimentu bat izan da.

N. Noiz hasi zineten?

I. O. Taldea urtarrilean abiatu zen.

Ainara Arteaga. Irenek beti esaten zigun etortzeko. Haurdun geundenen artean, talde bat osatzen bazen etorriko ginela esan genuen. Lehenengo Nere eta bion artean eta gero, ezagun gehiago genituen haurdun zeudenak, gurekin batera yogan hasteko.

N. Zer ariketa mota egiten dituzue?

Nere Ezpeleta. Hemen, arnasketa saio sakonak egiten ditugu. Konturatzen zara haurrak nabari duela, asko mugitzen da. Berezia da. Yoga klaseak inoiz ez nituen jaso, niretzat berria da guztia, eta esperientzia bezala oso ona.

N. Yoga haurdunaldi osoan zehar egin liteke, edo komenigarriagoa da une konkretu batzuetarako?

I. O. Gutxi gorabehera haurdunaldiaren hirugarren hilabetetik aurrera, une ona da. Haurdunaldiaren hasieran, goragaleak izan ditzakezu. Halakorik



SANTUENENKO ELKARTEAN BILTZEN DA YOGA TALDE HAU. HAURDUN DIREN HAINBAT HERRITAR YOGA EGITEN HASI ZIREN URTARRILEAN.

ez baduzu, yoga egiten has zaitezke. Hirugarren hilabetetik aurrera hastera animatzen dute. Ondo egonez gero, amaieraraino. Batzuk ezetz diote, baina gorputza jakintsua da, eta ohartarazten dizu noiz arte jarrai dezakezun.

Lourdes Galvez. Haurdunaldiak aurrera egin ahala, gorputz-jarrerak geroz eta gehiago egokitu behar dira, gorputzaren mugikortasuna murrizten doa eta.

I. O. Gorputza aldatzen ari da, azkenean, postura batzuetan jartzea ezinezkoa da, pisuagatik edota tenkadurak direla eta. Lasaitasun gehiago izan ohi dugu, erritmo mantsoagoa. Horretan gabiltza.

N. E. Kontrakzioak dituzunean, arnasketa saio hauek erabilgarriak dira. Orain haur txikiak ere yogako klaseetan parte hartzen dute. Yogak ez du bukaerarik, nik uste.

Arnasketa, luzaketa-ariketak eta erlaxapena

NOAUA! Lasaitasunerako teknikak ugariak dira gaur egun. Yogak zer bereizgarri ditu?

Irene Oyarbide. Lehenbizi arnasketa saioak dira, yogako betiko klaseetan egiten direnak. Haurdunaldietan beti entzuten da, arnasketa ezinbestekoa dela erditzea prestatzeko. Gero, gorputz-jarrerak, luzaketa ariketak ere hemen egiten dira, baina mugekin. Badaude egokitu beharreko gorputz-jarrera batzuk. Ni ere ikasleen bidez ikasten joan naiz. Yogako klaseetan haurdun dauden pertsonak izan ditut, baina benetan orain ari naiz ikasten.

Klaseko azken zatian erlaxapen saioa

egiten dugu. Klasea berdin burutzen da, soilik apur bat egokitzen da. Onena haien erritmoa da, haurdunaldiak berak eskatzen duena. Yogan bilatzen dugun erritmoa, haiek naturalki badute jada.

N. Abantaila dute beraz?

I. O. Bai noski. Haiek erritmo mantsoagoa dutenez, euren gorputzez kontzientzietagoak dira. Yogak ez dira gorputz-jarrerak soilik, nork bere baitarekin duen batasun kontzientea baizik. Haurdun daudenak une ezin hobean daude horretaz jabetzeko, gauza askoz gehiago sentitzen baitituzte.

“Erditzerako indartu eta une hori errazten laguntzen du yogak”

NOAUA! Haurdunaldi garairako planteatu duzue yoga, edo haurra jaio ostean segitzeko?

Nere Ezpeleta. Nik gero jarraitzeko. Gero ez dakit zer denbora izango dudan, nola ibiliko naizen. Baina ez nuke utzi nahi, jada erritmo bat hartzen duzu, oso gustura nabil, eta jarraitu nahiko nuke. Ikusten dut ondo datorkidala, arnastu eta lasaitzea. Gorputza aldetik badirudi ez duzula soinketarik egiten, baina azke-nerako egiten duzu.

L. G. Arnasketekin batera, Irenek gure gorputzak nola funtzionatzen duen irakasten digu. Nola mugitzen den benetan ariketa horiekin.

I. O. Usurbilgo esperimntua hau izaten ari da. Ideia ondo atera denez, gustura gaude. Ia datorren urtean taldea osatzen den.

LOURDES GALVEZ

“Erditze unerako, zure gorputza kontrolatzen ikasten duzu”

N. Zer onura dakartza yogak haurdun daudenezat?

I. O. Beren erditze aurreko klaseak apur bat mugatuak dira, haiek diotenez. Honek ikuspegi globalagoa izaten laguntzen du, haurdunalditik ikastea. Gainera, ikasleak haurdunaldiko garai bertsuan daude. Horrek gure artean gauzak partekatu eta taldea bera indartu du. Haurdun egongo banintz, gomendatuko nuke.

A. L. Guretzat oso ona da. Beti erditze aurreko klaseen zain daude. Nire esperientzia pertsonalaren arabera, ordu eta erdiz haurdunaldiaz hitz egiten eta agerian dauden gorputzeko aldaketek aritzen gara. Ez dakit zer ekarpen egiten didaten. Ez dizute erditze unerako prestatzen. Ez ditugu arnasketa saioak egiten, ez ditugu posturak lantzen, hitz



ARNASKETA EDOA ARIKETA FISIKOA DIRA YOGA IKASTARO HONETAN LANTZEN DIREN JARDUERAK.

egin bakarrik. Komenigarriagoa da yoga klaseetara joatea, hirugarren hiletik aurrera.

N. E. Erditze aurreko lehen klasean galdetu ziguten, ia pilates edo yoga klaseak jasotzen genituen. Jada haiek ere aholkatzen dute. Ondo dator, gerorako.

L. G. Aurre erditze klaseetan, datu zientifikoak ematen dituzte. Haurra

hala edo bestela aterako da, gorputzak modu batera edo bestera erreakzionatzen duela. Hori interesgarria da baina benetan axola zaiguna, gure gorputzaren benetako kontzientzia izatea da. Zure gorputzaren kontzientzia duzu eta erditze unerako benetan garrantzitsuena dena, berau kontrolatzen ikasten duzu. Yogak ikuspegi osoagoa ematen dizu.

Lourdes Galvez, ikaslea:

“Informazio asko jasotzen duzu klaseetan”

NOAUA. Yoga, erditze unea ahalik eta errazena izateko. Nola konbentzitu haurdun dagoen emakumeak yoga ikastaro batean izena eman dezan?

I. O. Lantzen ditugun gorputz atalekin, erditzerako indartu eta une hori errazten laguntzen du yogak. Lasaitasuna, tentsioa lasaitzea, mina lantzen dira, erditze unean izango duzuna. Guztia ondo badoakie, denek erditze une naturalak badituzte, hemen ikasitakoa oso erabilgarria izango zaie. Haurra jaio ostean kontatuko digute.

L. G. Informazio asko jasotzen duzu klaseetan. Diotenez, erditzeak izan

dituztenekin gehiegi ez hitz egitea gomendatzen dute, batez ere esperientzia zailak izan dituztenekin. Askotan psikologikoki zerorrek probokatzen duzu egoera konplexuagoa izatea. Yogarekin zeure gorputza ezagutu eta gainerakoek esandakoa bost axola izaten laguntzen du.

I. O. Yogaren alderdi positiboa garrantzitsua, geure burua aldaraztea da. Hemengoaz eta orainaz arduratzea, yoga orainaldiaz arduratzen da. Eta etorkizunari aurrea ez hartzea, buruak pelikula ezkor asko egiten baititu, beldurragatik, egoera ezezagunengatik.

Kuboetako pegatinak gutun bidez bidaliko dira datozen egunetan

Zati organikoa astean hirutan ateratzeko aukera dago. Herritar orok badaki zer zintzilikagarrietan utzi behar duen ontzi marroia. Baina ontziak berak ez du identifikagarririk. Hori ordea, gutxi barru aldatuko da. Datozen egunetan, herritarrek gutun bidez, zenbakidun bi pegatina jasoko dituzte.

Atez ateko bilketa sistema martxan jarri zenetik, herritar bakoitzak bazekien egun ez egun atarira ateratako hondakin zatia zintzilikagarririk konkretu batean utz ezakeela, zenbaki identifikagarri zehatz bat zuen horretan hain zuzen. Aldiz, organikoaren kubo marroiak ez zuen identifikagarririk. Batzuk marrazkiren bat jarri diote berea beste batekin ez nahasteko, beste batzuk zintzilikagarriko zenbaki bera idatzi diote.

Baina aurrerantzean halakoen beharrik ez da izango. Egunotan bizileku bakoitzean Udaletik bidalitako eskutitz bana jasoko da. Bertan, ohar batekin batera, bi pegatina euren zenbaki identifikagarriekin, etxean norberak dituen bi kubo marroietan jartzeko. Aipatu bezala bi zenbaki izango dituzte pegatinekin; goialdean kuboaren zintzilikagarraren zenbakia ageri da. Behealdean berriz, tamaina txikiagoan, ontzi marroien zenbakia. Bi pegatinak bi kubo marroietan itsatsi beharko dira, aurrealdean, atez atekoaren logoarekin azpialdean.

Zorion mezua herritarrentzat
%28tik %76ra igo da birziklatzearen ehunekoa Usurbilen, lau asteren buruan. Etxebizitzetara bidaliko den eskutitzean, herritarrek burututako lana eskertu nahi du Udalak, eta emaitzagarri zoriandu.



GUTUN BIDEZ, BI PEGATINA BANATUKO DIRA. PEGATINAK BI KUBO MARROIETAN ITSATSI BEHAR DIRA.

Herri galdeketa prestatzeko ingurumen eragileekin bilduko da Udala datorren astean

Hil honetako azken ostiralean, Udalak herriko ingurumen alorreko eragileekin bildu nahi du hondakinen kudeaketaren inguruan egingo den galdeketa buruz hitz egiteko. Herritarrei luzatuko zaien galderak bere baitan zer jaso behar duen zehazteko. Beraz, udal ordezkariekin batera, herriko eragileak izango dira zer galdetu erabakiko dutenak.

Herriko ingurumen eragileekin bilduko da Udala, datorren maiatzaren 29an. Asmoa, hondakinen kudeaketari lotuta egingo den galdeketa edukia prestatzea litzateke; hau da, herritarrei egingo zaien galderak zer jaso behar duen zehaztea izango da euren egiteko nagusia. Gutxienez, eragile bakoitzeko ordezkari bana joatea bultzatu nahi da. Hitzorduan parte hartzeko gonbita luzatzeko gutunak bidaliko ditu Udalak.

Osoko bilkuran, galdeketa hizpide

Egun batzuk lehenago, maiatzaren 26an burutuko den ohiko osoko bilkuran, galdeketa horren emaitza lotselea izango den bozkatu beharko dute udal ordezkariak. Horrekin batera, etorkizunean burutu nahiko litzatekeen edozein aldaketa, bide beretik gauzatzea ere erabakiko da saio berean.

Galderak zehazten duen proposamenak, gero, Ingurumen eta Nekazaritza Batzordetik igaro beharko du. Eta handik osoko bilkurara eramango dute, udal ordezkariak bozka dezaten.

Bilera Sutegin egingo da, maiatzaren 29an ostirala

Bilkura herriko ingurumen eragileekin. Maiatzak 29an ostirala, arratsaldeko 18:30ean Sutegin.

Ontzi arinetan, inpropioak %11 baino gutxiago dira

Hauxe da atez ateko gaikako bilketa sistema martxan jarri zenetik, ontzi arinen bilketaren inguruan Ecoembesek kaleratu dituen lehen datuak: bildutakoaren %88,42a birziklagarria da. Gainerako %11,57, inpropioak. Baina ehuneko horretako zati bat ere birziklagarria da.

Inpropioen ehuneko hori gehiago murriztu liteke, egunerokotasunean zenbait aldaketa txiki eginda. Hona hemen bi aholku:

-**Ontzi arinak ateratzekoan**, zabor poltsak ez erabili, **plastikozko poltsak** baizik (Eroski eta antzeko saltokietan ematen dituzten moduko poltsak).

-**Botilei tapoiak kenduta sartu plastikozko poltsan**. Bestela, kamioiak botilak trinkotzeko arazoak izango ditu eta.

Uda honetan ere, Udajolas

Usurbilgo Udalak, NOAUA! Kultur Elkartearekin elkarlanean, udaleku iriak antolatu ditu. "Udajolas" eskaintzaren bidez, herriko haur eta gaztetxoei aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera eskaini nahi zaie.

Udajolas 4 eta 12 urte (HH3-LH6) bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago. Gehieneko plaza kopurua 95 umekoa izango da, beraz, izena ematen duten lehendabiziko 95 umeak onartuko dira, ez gehiago.

Uztailean bakarrik

Uztailaren 6an hasi eta 30ean amaituko da Udajolas. Ordutegi hau izango du: 09:30-13:30.

Izen emateko epea: maiatzaren 20tik 29ra (biak barne).

Lekua: NOAUA!ren egoitzan (Bordaberri kalea 3).

Izen emateko ordutegia: astelehenetik ostiralera: 17:00-19:00.



MAIATZAREN 29AN AMAITUKO DA IZENA EMATEKO EPEA. UDAJOLAS, ORDEA, UZTAILAREN 6AN HASI ETA 30EAN AMAITUKO DA.

Kuota: 72 euro.

Familia ugaria: 60eur o.

Ordainketa: Euskadiko Kutzako (laborala) kontu honetan egin behar da. Bertan, haurren izen-abizenak adierazi behar dira: 3035 0140 34 1400025811

- Izen ematerakoan ordainagiriaren kopia eta izen emateko orria aurkeztu behar dira.

- Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko inolako kasutan.

- Harremanetarako telefonoa: 943 360 321.

Usurbil Cup txapelketan izena emateko garaia da

Usurbil Cup txapelketa ez da desagertu. Iaz arte, antolaketan aritu zirenek erreleboa eskatu zuten. NOAUA!n argitaratutako oharra izan du oihartzunik, ordea. Lan talde berri batek bideratuko du gaztetxoei zuzendutako futbol txapelketa.

Adinaren arabera, lau maila antolatu dira: minibenjaminak (2001-2002), benjaminak (1999-2000), alebinak (1997-1998), infantilak (1995-1996).

Maila bakoitzean gutxienez 5 talde osatu beharko dira txapelketa hasteko.

Talde bakoitzak, gainera, 16 urtetik gorako ordezkari-entrenatzaile bana izan beharko du.

Eta talde bakoitza, gutxienez, 7 jokalariz osatuko da, gehienez 12.

Txapelketako gastuei aurre egiteko, talde bakoitzak 40 euro jarri beharko ditu.



TALDE BAKOITZAK 40 EURO JARRI BEHARKO DITU, GASTUEI AURRE EGITEKO.

Talde bakoitzak sobre bat utzi beharko du Oiarde kiroldegian eta bertan ondorengo sartu beharko da: jokalaria bakoitzaren izen abizenak eta jaiotze data, entrenatzaile-ordezkariaren NAN-ren fotokopia eta telefono zenbakia, dirua eta taldearen izena eta maila.

Izen-emateko epea: maiatzaren 27a asteazkena, azken eguna.

Harremanetarako: 677685263 (Muñoz), 692837951 (Marije).

Zubietako Udako Txokoak martxan

Udako Txokoak 2-11 urteko haurrentzat zuzenduta egongo da. Bi hilabetez luzatuko dira txokoak: uztailean eta abuztuan. Eskola Txikia izango da Udako Txokoaren egoitza nagusia. Eta goizez egongo da martxan, 9:30etik 13:30era. Aurten, hilabeteko lehen edo bigarren hamabostaldirako izena emateko aukera dago.

Kuota ez dago zehaztuta oraindik. Izena ematen duten haurren kopuruaren arabera zehaztuko da ordaindu beharrekoa. Halere, Eskola Txikiko haurren kuota merkeagoa izango da. Informazio gehiago: 618700479.

Izen-ematea maiatzaren 29an amaituko da. Izena emateko orria bete eta udaletxeko buzoian sartu behar da (Alamandegin).

Josune Mujika, udaletxeko enplegu sustapen bulegoa

“Larritasun handiagoa dago gaur egun”

Krisi garaian bizi gara. Langabeziak gora egin du eta hori da gauzak nola dabilzan ikusteko neurgailurik argiena. Eta datuek argi hitz egiten dute. Langabeziak, Usurbilen ere, gora egin du. Josune Mujika enplegu sustapen bulegoko teknikariak adierazi digunez, gaur egun “jendea babesgabezia maila handiagoan aurkitzen da eta, zentzu horretan, larritasun handiagoa dago”.

NOAUA! Zuen bulegoetan beste garaitan baino mugimendu, kezka handiagoa nabari da?

Josune Mujika. Langabezia tasa 1996, 1997an, genituen zifretan dago. Garai haiekin alderatuz esan daiteke gaur egun langabeziari aurre egiteko zerbitzu askoz gehiago daudela. Honela Lanbideko zentro laguntzaileak asko dira, Lanbide bulegoak ireki dira, enplegurako orientazio zerbitzuak eskaintzen dira, beraz une honetan laguntza gehiago daude. Beraz langabetuak zerbitzu gehiago ditu eta orduan gehiago dispersatzen da.

JOSUNE MUJIKA

“Lan merkatuak lehendabizi hauek kanporatzen ditu; 45 urte baino zaharragoak, minusbaliatuak eta etorkinak”

Udaletxeko bulegotik bai, nabaritu da mugimendu handiagoa egoteaz gain, egoerak larritu egin direla eta jendea babesgabezia maila handiagoan aurkitzen dela, eta zentzu honetan larritasun handiagoa dago. Honela, gehien datozenak giza talde ahulenak dira, lan merkatuak lehendabizi hauek kanporatzen baititu; 45 urte baino zaharragoak, minusbaliatuak eta etorkinak.

N. Une honetan, zenbateko langabezia tasa dago Usurbilen?



2009KO MARTXOAREN 31N, INEM BULEGOETAN 275 USURBILDAR ZEUDEN IZENA EMANDA. HONEK, %10EKO LANGABEZIA TASA SUPOSATZEN DU.

J. M. Dauzkagun azken datuen arabera, INEMen izen emandakoak 2009ko martxoaren 31n, 275 langabetu dira. Honek %10eko langabezi tasa suposatzen du.

N. Langabetuaren profila emakumeena izan ohi da nagusiki. Gizonezkoen langabe kopurua ordea askoz gehiago hazi dela diote. Aldaketarik nabari da langabetuaren profilean edo orain artekoa mantentzen da?

J. M. Une honetan gizonezko gehiago dira langabezian emakumezkoak baino, langabetuen %53,81 gizonezkoa da Usurbilen. Egia da gizonezkoen langabeziak igoera nabarmena jasan duela. 2008ko martxoko datuekin alderatzen badugu, gizonezkoen langabezia bikoiztu egin da; 73 langabetu izatetik 148 izatera pasa gara. Emakumezkoen langabeziak gora egin arren, era apalagoan egin du, igoera %20koa izan delarik. Beraz langabeziaren profila aldatu egin da. Esan bezala %53,81ean langabetua gizonezkoa da, %42,55ean 30-44 urtetako adin tartean aurkitzen da, eta %38,54ean 45 urte baino zaharragoak dira. Ikasketei dagokionean %62,18ak oinarritzko

ikasketak edo DBHko lehenengo etapa du gaintitua. Lanbideari dagokionean %35ean kualifikatu gabeko langileak dira eta ondoren %16arekin zerbitzutako langileak.

Langabezia datutan

Langabeziaren profila aldatu egin da. Usurbilen, une honetan, gizonezko gehiago dago langabezian. %53,81.

Gizonezkoen artean, bikoiztu egin da langabezia 2008ko martxotik hona, gizonezkoen langabezia-tasa bikoiztu egin da.

Langabetu gehien 30-44 adin tartean daude, %42,55.

Langabetuen %38,54, 45 urte edo zaharragoa den adin tartean aurkitzen da.

Emakumeen artean, %20 igo da langabezia 2008ko martxotik hona, emakumeen artean langabezia igo egin da, baina maila apalagoan, %20an.

“Gaur egun, ikastaro eskaintza zabala dago langabetuentzat”

NOAUA! Lanik gabe nago. Nora jo, nondik hasi lan bila, zer egin behar dut?

Josune Mujika. Lehendabizi EAEkoak diren enplegu zerbitzu publikoetan izena eman behar da. Hau da INEMeko bulegoan eta Lanbiden, (bulego batean edo zentro laguntzaile batean), Usurbilgo Udala Lanbideren zentro laguntzaile da. Ondoren, orientazio zentro batean hitzordua eskatu beharko litzateke, honela, lan eskaintzen buruzko informazioa jaso, *curriculum vitae* eguneratu eta ondo jarri, lana bilatzeko direktorioak lortu, bertako lan poltsetan sartu edo prestakuntzari buruzko informazioa jasotzeko.

Komeni da Usurbilgo Udalera etortzea ere, Lanbiden izena emateko nahiz orientazio zentroen informazioa jasotzeko. Udaletxeratik enplegu prestakuntzako egitasmoak ere burutu ohi dira langabetuei zuzenduta eta lagungarria izaten da udalerriko langabeen informazioa izatea, hauek programatu ahal izateko.

JOSUNE MUJIKA

“Lanean daudenentzat pentsatutako birziklatze ikastaroetan ere parte har dezake langabetuak”

N. Harrigarria iruditu arren, lanbide batzuetan langile falta bada, ezta? Zeintzutan?

J. M. Gipuzkoako probintzian



IKASTAROETAN HASI AURRETIK, ORIENTAZIO ZENTRO BATERA JOAN BEHAR DA.

momentu honetan galdaragile-tuberoa lanbidea dago langile premian.

N. Enplegu sormen indize oso altua du Usurbilek, lanbide.net web orrian ikus daitekeenez. Lasaitzeko moduko berria da hori?

J. M. Enplegu sormen indizea kontratu zenbakiarekin dago lotua. Askotan kontratu kopurua altua izateak ez du esan nahi lan merkatuak langile gehiago asumitzen dituenik, baikik eta errotazio handiagoa dagoela. Nabarmena da, krisialdia dela eta, orokorrean lan eskaintzak jaitsi egin direla.

N. Datozen hilabetei begirako aurreikuspen bat egin dezakezue? Horri buruzko daturik baduzue?

J.M. Egia esan ez daukagu honen inguruko daturik, ez bada prentsan atera izan dena.

N. Lanik gabe geratuz gero, "birziklatzeko" garaia dela diote. Zer nolako prestakuntza eskaintza jaso dezake langabetu batek?

J. M. Gaur egun ikastaro eskaintza zabala dago langabetuentzat. Alde batetik INEMeko ikastaroak daude bestetik Lanbidekoak eta baita ere Foru aldundikoak ere. Gainera gaur egungo prestakuntza aldatu egin da eta langabetuak, lanean direnentzat pentsatutako birziklatze ikastaroetan ere parte hartu dezake. Lanbideko ikastaroetan eta Foru Aldundikoetan parte hartzeko lanbideko orientazio zentro batetik pasa beharra dago.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tif 36 21 64
USURBIL

JOSUE
ARANZAZISTROKI
**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**
Juan Jose enea. 6 Kalean
Telf: 606 57 21 05

Andoni Errazkin
Xukin
Igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Oraindik Geroztan
LABE-GOXO

Lanbide Prestakuntza Programak

Lanbide bat ikasi eta enpresetan praktikak egin daitezke

Orain arte, Lanbide Hastapen Tailerrak bezala ziren ezagunak. Baina orain, ikasketa arautuan sartu dira ikastaro hauek eta aurrerantzean, "Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak" izena hartuko dute, lan munduan sartzeko bidea irekitzen duten ikastaroek. Usurbilen bi espezialitate ikasi daitezke: Ile-apainketa eta edergintza laguntzailea eta Sukaldari-zerbitzari langilea. Izena emateko epea ireki da.

Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lankidetzari esker osatu dira Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak. Lanbide Heziketaren barruan kokatzen dira programa hauek. Eta bereizgarri moduan, doakoak dira ikasketa hauek.

Lan-mundura sartzeko bidea arindu asmoz, lanbide bat ikasteaz gain enpresetan praktikak egin daitezke. Honetaz gain, DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) graduatua lortzeko laguntza ere jasotzen dute ikasleek.

Usurbilen bi espezialitate eskainiko dira:

- Sukaldari-zerbitzari langilea (zerbitzari lana, gozogintza, okina, sukaldaritza).
- Ile-apainketa eta edergintza laguntzailea.

Lanbide Prestakuntza Programak bi urtez luzatzen dira. Guztira, 2.100 ordu jasoko ditu ikasleak.

Lehenengo ikasturtea 2009ko urrian hasiko da eta 2010eko ekainean amaitu. Guztira: 1.050 ordu.

Bigarren ikasturtean, praktikak enpresetan

Bigarren ikasturtea, sakontze ikastaroa, 2010eko urrian hasi eta 2011ko apirilean amaitu. Guztira: 700 ordu.



USURBILLEN BI ESPEZIALITATE ESKAINIKO DIRA: SUKALDARI-ZERBITZARI LAGUNTZAILEA ETA ILE-APAINKETA-EDERGINTZA LAGUNTZAILEA.

2011ko apiriletik ekainera, lan praktikak eskualdeko enpresetan. 350 orduko praktikak.

Titulu arautua

Lortzen den titulua arautua da. Hain zuzen ere, Lanbide Heziketako gaitasun profesionaleko lehenengo maila.

16/18 urteko gazteentzat

- 16/18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude ikastaro hauek. Egoera berezietan, 15 urteko gazteak aukera izango dute programan parte hartzeko.

- DBHko graduatua lortu ez duten gazteak.

- Lanbide bat ikasi nahi duten gazteak.

Izen-ematea irekita

Maiatzaren 15etik uztailaren 17ra arte, Usurbilgo udaletxean. Informazio gehiago: 943 360 465

E-posta: lhi.usurbil@gmail.com

Eskualdeko ikastetxeetako orientatzaileentzat ate-irekien jardunaldia antolatu zen apirilaren 30ean. Interesaturik dagoen edonorentzako

(gizarte eragile, guraso, gazte) ikastetxe-ateak zabalik daude. Beraz, bisita egiteko gonbidapena luzatua dago.

Titulazioa duten ikasketak

Lanbide Hastapeneko Tailerrak desagertu eta toki hori Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak beteko du.

Hala ere, titulazioa duen ikasketa izango da: Lanbide Heziketako gaitasun profesionaleko lehenengo maila.

DBHko graduatua lortzeko HHI/EPArekin koordinatuko dira ikastetxeak. Graduatu lortuz gero, erdi-mailako ziklo bat egiteko aukera zabalduko zaie ikasleei.

Sukaldaritza tailerrean zerbitzu modulua sartu da aurrean. Hau da, taberna bateko barran lan egiteko ere prestakuntza jasoko dute. Honez gain, jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko baliabideak eskainiko zaizkie. Hori guztia sukaldaritza, gozogintza eta okinaren lanbideak ahaztu gabe.

Baxurde Txiki, sasoiko duatloi probatan

Baxurde Txiki triatloi taldea sasoi betean dago. Argi erakusten dute azken aldian lortu dituzten emaitzek. Irailean ospatuko den Baxurde kroserako ere, prestatzera deitzen dituzte herritarrak.

Bederatzi lasterketez osaturiko ibilbidean taldea bigarren postuan sailkatu zen. Euskadiko txapelkunorde izan zen, Arrigorriagan ospatutako distantzia luze-ko duatloi txapelketan.

Mikel Otaegi, onenen artean

Proba berean, Mikel Otaegi Euskadiko txapeldun izendatu zuten eta sailkapen orokorrean, Gipuzkoako Txapelketa ere eskuratu eta bigarren postua eskuratu du 23 urtez azpiko en mailan. Iñaki Añorgak aldiz, zortzigarren



BAXURDE TXIKIKO TALLEKIDEAK ARRIGORRIAGA ETA SENPEREKO LASTERKETETAN HARTU DUTE PARTE.

postua elite mailan. Berak eta Otaegik, biek Euskadiko Selektzioak deituta Gasteizen burutu zen Espainiako txapelketan parte hartu zuten.

Ekainaren 13an, Zarautzen

Triatloi denboraldiari maiatzaren 3an ekin zioten Senperen. Euskadiko zirkui-



toa osatu asmoz, besteak beste, ekainaren 13an hamar taldekideek Zarauzko triatloian parte hartuko dute.

IronMan proban pentsatzen

Baita, Bartzelonako eta Nizako IronMan probetan edo Alpe D'Huezeko triatloian ere.

Paleta goma txapelketan izena emateko garaia

Paleta goma txapelketa antolatuta da aurten. Herriko pilota txapelketa bezala, paletakoa ere jaietan amaituko da. Izena emateko epea maiatzaren 22an amaituko da.

Bi pilotarien izenak eman behar dira. Bietako bat bakarrik izan daiteke Euskal Pilotan federatua. Izen-ematea: 20 euro + 30 euroko fidantza.

Partidak: igande arratsaldetan 18:00etatik aurrera eta izen-emate kopurua handia balitz, maiatzaren 25eko bilean zehaztuko litzateke beste egun bat.

Izena Oiardo kiroldagian eman behar da.

Informazioa 653728059 (Haritz).

Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

Txapelketaren nondik norakoak zehazteko maiatzaren 25ean bilera egingo da 20:00etan Sutegin.

Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkariak.

Emakumeen arteko txapelketa jokatuko da gutxiengo izen emate kopuru bat osatzen bada.

Gipuzkoako Txirrindulari Lasterketa

Maiatzaren 9an jokatu zen Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa, taldekako erlojuaren aurkako frogan. Infantil mailan, Caja Rural 2 izan zen irabazlea. Bigarren, Optika Bidasoa eta hirugarren Azysa Gipuzkoa.

Alebinen artean, Salvatore Mitxelena 1 taldea izan zen lehena. Laiotz Segura taldea bigarren; Andoaingo Aita Larramendi hirugarren.

Lasterketa mixtoan, Andoain - San Millan - Pello Errota taldeek osatutako hirukotea izan zen nagusi. Bigarren, Errekalde Txantxiku eta hirugarren Toki Alai - San Jose- Talaia- Arizmendi Almen -Arrasate HE.

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak bere esker ona azaldu nahi die Rural Kutxari, Skodari, Atxega Jatetxeari eta Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei.



Pilota Txapelketako partidak, Zubietan

Azken zortzirenetan da Santixabel jaietako pilota txapelketa. Aurreko asteburuan, jubenil mailan, 22-7 galdu zuen Mendizabal-Ostolaza bikoteak Hernaniko bikotearen aurkako partidari.

JUBENILAK, ZUBIETAN Maiatzak 23 larunbata, 10:30

Lehen partida:
Iriondo-Murgiondo / Mujika-Irurtzu
Bigarren partida:
Arzelus-Arratibel / Mendoiro-Juanena

Maiatzak 24 igandea, 10:30

Lehen partida:
Santxo-Azpitarte / Sukia-Otaegi
Bigarren partida:
Urdangarin-Maiza / Ulanga-Bengoa

NAGUSIAK, ZUBIETAN Maiatzak 23 larunbata, 10:30

A.Aranburu-Elola / Azpiazu-Perez
(Jubenilen partidak jokatu eta gero)

Maiatzak 24 igandea, 10:30

Errasti-Katalina / Hernandez-Sagaseta
(Jubenilen partidak jokatu eta gero)

Agenda !!

Maiatzak 24 igandea

XXVIII. Sagardo Eguna.

11:30ean hasiera ekitaldia. 12:00etan, sagardo botatzaileen txapelketa. Bazkalondoan, txaranga. 18:00etan, erromeria Ostolaza eta Pujanarekin.

Maiatzak 25 astelehena

Hitzaldia: "Los Fueros". 19:00etan Sutegin. Hizlaria: Mikel Soraren.

Maiatzak 25 astelehena

Ikastolako ikasleen bertso jaialdia. 18:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Maiatzak 28 osteguna

Olarriondo-Ugartondoko etxeei buruzko bilera. 18:30ean kiroldegian.

Maiatzak 30 larunbata

Kantu-jira kalez kale. 19:00etan frontoitik irteera. Usurbilgo Kantu Taldea.

Korrontzi taldearen folk kontzertua. 20:00etan frontoian.

Olarriondo-Ugartondoko etxebizitzetzi buruzko bilera deitu du Udalak

Olarriondo eta Ugartondo eremuko babes ofizialeko eta etxebizitza tasatuen eta zerrendatan izena eman zutenen egoera zertan den azaltzeko informazioa eskainiko du gobernu taldeak jendaurrean. Maiatzaren 28an finkatu du bilkura irekirako eguna, kiroldegian.

350etik gora dira Olarriondo eta Ugartondo eremuetan eraikitzeke dauden etxebizitzetako zerrendetan izena emana duten herritarrak. Udaletik jakinarazi dutenez, egin beharreko datu bilketa guztia egin ondoren iritsi da informazioa publikoki helarazteko unea. Datorren maiatzaren 28an, osteguna, kiroldegian bilkura irekia deitu du, herritarrei gaiak orain arte izan duen ibilbidearen eta egungo egoeraren berri, ahalik eta modu argienean emateko. Gutun bidez jakinaraziko zaie zerrendatan izena eman zuten herritarrei.



OLARRIONDO ETA UGARTONDOKO (IRUDIAN) EREMUE TAN AURREIKUSI DIRA ETXE BERRIAK.

Landuko diren gaiak

1- Zozketa zerrendaren egoera azaltzea; nondik eta zergatik dagoen egoera hau.

2- Etxebizitzaren egoera azaltzea: ibilbidea, eman diren urratsak.

3- Aurrera begirako aurreikuspena.

Maiatzaren 28an, kiroldegian

Eguna: maiatzak 28 osteguna.

Ordua: 18:30, Oiardo kiroldegian.

Egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa, maiatzaren 29a arte

Lehiaketa honetara norbanakolak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldeki de bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkez daitezke.

Jaietako egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da.

Lanaren neurria librea izango da.

Erabakia hartzerakoan, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari garrantzia emango zaio.

Maiatzaren 29a baino lehenago aurkeztu behar da diseinu-proposamena. Saria 500 eurokoa da.

Santixabel Bertso Paper Lehiaketa, martxan

Lanak, uztailaren 1a baino lehen, Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXI. Bertso paper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.

Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Gutxienez 8 bertso aurkeztu behar dira eta gehienez 10.

- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.

Lanarekin batera, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini behar dira.

Usurbildarra izatea eta gai librean idaztea dira beste baldintzak.

Ekainaren 2an, Jai Batzordearen bilera berria

Lehen bileran, Santixabelletako jai egunak zehaztu ziren, uztailaren 1etik 5era egingo dira festak. Duela aste pare bat egindako bileran, ordea, eguneko egitaraua bideratu zuten.

Hurrengo bilera ekainaren 2an izango da, asteartea, arratsaldeko 18:30etik aurrera udalbatza pleno aretoan.



ETXEBIZITZA

- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
- Usurbilen, bikote batek logela (etxe berria) alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943 575 788 / 609901 734.
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukalde eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarreako, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 3200 metro karratuko lur zatia salgai Kalezar auzoan. 665720913
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzaren matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Peugeot 307-SW familiarra 2003 urtekoa eta

beis kolorekoa. 637894997.

- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko; 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.

- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Agapurni txori bat galdu dugu maiatzaren 8an kaxkoan. Loro mota bat da eta gorputza grisa du, lepo eta buruak txuriak eta isatsa urdina eta grisa. Aurkitu baduzu, bueltatzea sarrituko da. 943370722.
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen dira Usurbilen. Maila guztietakoak. Astelehen eta asteartetan arratsaldeko 20:30ean. Maiatzaren 4an hasiko gara. Informazio gehiago Laurok Liburudendan.
- Teckel txakurkumeak salgai, oso politak, standard tamaina, ile gogorrekoak.. Tel: 636 39 32 37
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazauzka maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentziora jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

**Zorionak Xabier!**

Datorren maiatzaren 22an 9 urte beteko dituzu. Zorionak Maria, Jon, aitaxo eta

amatxoren partez!

**Zorionak Julen!**

Maiatzaren 26an 8 urte egingo dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan

partez!

**Zorionak Julen!**

maiatzaren 26an 11 urte. Muxu handi bat eta besarkada bat familikoan partez. Ondo pasa!

JAIOTZAK

- Iker Galarregi Goenaga, apirilaren 30ean
- Axel Larrañaga Arrozpide, maiatzaren 1ean

**Zorionak Oier!**

4 urte bete dituzulako jaso muxu handi bat Aginagako eskolako lagunen partez.



Zorionak German eta Herminia! Urrezko ezteiak ospatu ditugu maiatzaren 16an. Duela 50 urte ezkondu eta eztei-bidaia Salamankatik Aginagara eginda, hemen gelditu zinteten!

HILDAKOAK

Isidro Añorga Mendizabal, maiatzaren 12an hil zen 89 urterekin. Kalezar.

**HILDAKOAK**

Federico Lopez Curiel, maiatzaren 11n hil zen 77 urterekin. Santuenea.



maiatzaren 30ean, larunbata
Korrontzi folk taldearen kontzertua



20:00tan frontoian,



Noauaren eskutik

TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



LARRE-GAIN

DOLARE-SAGARDOTEGIA

Urtean lotik opirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingandue
eguerdian **IREKITA**
Astelehena **ITXITA**

Larre-Gain Baserria • Ereñotzu - Hemani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR

Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel.: 943 302 024
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA-NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com

Tel.: 943 36 66 63
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astiazaransagardoak.com

Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estnata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com



N!

geligarri berezia
XXVIII. Sagardo eguna

09

maiatzak 24



NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

pil-pilean



XXVIII. SAGARDO EGUNA, GERTURATU ETA DASTATU

Hogeita zortzigarren edizioa izan arren, badira sekula aldatzen ez diren gauzak; bertaratzen direnen sagardo egarria eta jai giroarako gogoia edota antolatzaileekin batera, zerbitzatzen ari direnen ahalegin eta pazientzia!

Hogeita zortzigarren edizioa ailegatuko da igandean, Sagardo Eguna. Urteetan aurrera doa bai, baina beste behin, betiko indarrarekin eta bertaratzen direnei ahalik eta harrera onena egiteko prest dator maiatzaren 24an. Pilotaleku zein Dema plazan kokatuko diren 45 sagardogileren postuetatik barrena osteratxo ederra egin ahal izango da. Zentzumen guztien gozamerako.



45 IZANGO DIRA IGANDEAN BILDUKO DIREN SAGARDOGILEAK.

Sagardo Egunak ohiko postuez gain, aurten ere, gutxienez beste bi eskenatoki nagusi izango ditu. Goiz pasa horretan ezin baita ahaztu, edariaz gain, jatekoa ere egongo dela Askatasuna plazan. Pintxo gozoak, sagardo edanari laguntzeko. Gainera, pilotalekuan indarrak baino sagardoa botatzeko batzuek zein besteek duten abilezia neurtuko da, urteroko txapelketaren bidez.

Jo eta su lanean

Sagardoa ahitu edota postuak biltzeko garaia ailegatu arte bestalde, jo eta su arituko dira lanean sagardo botatzaileak. Zerbitzatzeko mahaietan edalontzien mugimendua etengabekoa

izango da. Aurten hain zuzen, txertatu nahi zituzten berrikuntza batzuek tarteko, sagardo botatzen aritu nahi zutenak Sutegin hila-ren 20an burutzekoa zen bilkura-ra deitu zituzten antolatzaileek.

Bazkalostean, txaranga eta erromeria giroa

Hitza eman eta betetzen duten horietakoak izan behar, izenari erreparatuta behintzat. "Jun da jo" txarangako kideek alaituko dituzte arratsaldeko lehen orduak. Akabera emateko, erromeria giroa nagusituko da pilotalekuan, Ostolaza eta Pujanarekin. Hortik aurrera, norbere kontu noiz eta nola amaituko duen eguna.

Girotzeko, dastatze-saioa

Berrikuntza gisa, aurten-goan Sagardo Eguneko antolatzaileek dastatze saioa prestatu dute Artzabalen. Ostiralean, **maiatzak 22**, Mikel Garaizabal enologoa gonbidatu gisa izango duen afaria burutuko da. Iluntzeko 20:00etan ekingo zaio ekitaldiari. Jada txartelak erostera joateko berandu da, maiatzaren 19a baitzen horretarako antolatzaileek finkatu zuten azken eguna.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

txiritik



SAGASTIAK ONDO GOBERNATZEKO IKASTAROA

Sagardogile, sagardozale eta sagar-ekoizleei zuzendutako ikastaroa antolatu dute Astigarragako Sagardoetxeak eta Zizurkilgo Fraisorok. Helburua, sagasti bat ondo zaintzeko ezagutzak zabaltzea. Maiatzean hasi eta abendura bitarte luzatuko da ikastaro teoriko-praktikoa.

Ikastaroa Astigarragako Sagardoetxean eskainiko da. Alde teorikoa landuko da baina baita alde praktikoa ere. Horregatik, lau zatitan banatuta egongo da ikastaroa; sagasti baten jarraipenean eta zainketan garrantzia duten lau momentuen arabera. Loraldia, inausketa, izurriteen jarraipena, muztio ezberdinen azterketa... Ikastaro honetan landuko diren kontuak izango dira.

A) Fruituen kudeatzea

Maiatzak 20 (10:00-14:00)

- Loraldia eta kuajatzeta.
- Ekoizpena erregulatzea.

Alternantzia.

- Fruituen bakanketa.

Kurtsoko irakaslea Aitor Etxeandia izango da.

B) Zainketa udan

Ekainak 17 eta

Ekainak 18 (10:00-14:00)

- Inausketa berdea.
- Eskuz egindako bakanketa.
- Gaixotasun eta izurriteen jarraipena.
- Txerto-motak.

Kurtsoko irakasleak: Aitor Etxeandia eta Josu Osa.



AITOR ETXEANDIA IZANGO DA IRAKASLEETAKO BAT. IAZ, IKASTAROA ESKAINI ZUEN USURBILEN, ALKARTASUNA KOOPERATIBAK ANTOLATUTA.

C) Tolareko sagarraren heltzea dastatzea, analitika

Irailak 17 eta

Irailak 18 (10:00-14:00)

- Sagarraren heltzea.
- Azukrearen eta almidoi regresioaren garapena.
- Sagar dastatzea.
- Muztio desberdinen errendimendu eta analitika.
- Praktikak.

Ikastaro honetako irakasleak Aitor Etxeandia eta Xabier Kamio izango dira.

D) Neguko inausketa

Abenduak 17 eta

Abenduak 18 (10:00-14:00)

- Fruituak emateko inausketa.
- Inausketa motak.

Irakaslea: Yves Barranco.

Izena-emateko

Fraisorora deitu behar da

Ikastaro teoriko-praktiko honetan izena emateko, Itsasmendikoi Fraisorora deitu behar da, telefono zenbaki honetara: 943 692 166.

ANTXETA jatetxea

ONDO PASA SAGARDO EGUNEANI

bokatak - eguneroko menuak
plater konbinatuak
boda eta bataioak

EGUZKITZA 4 - 943 370 344

Auto Guria

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

tximlerra

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Ondo pasa Sagardo Eguneani!

TLFN : 943 36 04 66 kontseju zaharra 13 zb

LATAILLADE ITURGINTZA

Ondo pasa sagardo eguneani!

Iturgintza, gas,
berogintza eta
klimatizazioa

**INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUAK**

ARISTITXO 8 BEHEA
943 363 348 • 609 888 021

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

erreportajea



SAGARDO EGUNA EZ DA USURBILEN BAKARRIK OSPATZEN

Udaberriarekin batera, han eta hemen ugaritu egiten dira festak eta ospakizunak. Maiz, sagardoa da jai askotako protagonista. Usurbilgo Sagardo Eguna aitzindaria izan bazen, gaur egun Euskal Herriko txoko askotan ospatzen da antzeko egunik. Eta ikusiko duzuenetz, urte osoko kontua da sagardoarena, ez soilik udaberrikoa.

Maiatzak 30 Pasai-Antxo

Sagardo Eguna. Sagardo dastatzea egiten da, bertsolari, txalapartari eta txarangek azoka alaitzen dute. Alkartasuna Dantza Taldeak antolatzen du.

Maiatzak 31 Aia

Udaletxeak antolatuta, Nekazaritza eta Abeltzantza Azoka ospatuko da, eta bertan, sagardoa eta txakolina dastatzeko aukera izango da.

Ekainak 6 Donostia

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

erreportajea



Gipuzkoako sagardogileen sagardorik onenek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketan parte hartuko dute, Donostiako Gastronomiako Euskal Anaiartean.

Ekainak 21 Orio

Orioko Bisigu Egunean, sagardoa eta txakolina dastatzeko aukera izango da. Orioko Udaletxeak eta Arkupe Merkatari Elkartek antolatzen dute.

Ekainak 26 Mutiloa

Mutiloako jaien barruan sagardo probaketa egingo da.

Uztailak 25 Azepeitia

Santio Egunean Azepeitian Baserritarraren Eguna ospatzen da. Plaza Nagusian eskualdeko ganaduaren azoka ospatzen da eta sagardo eta gazta lehiaketa egiten da.

Uztailak 26 Astigarraga

Santa Ana eguna izango da Astigarragan eta, bertan, Sagardo Eguna ospatuko da, egiten diren sagardo egunetan zaharrena dena.

Abuztuak 1 Ondarroa

Nekazaritza eta Artisautza Azoka. Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta izango dira, hala nola, sagardo eta haragi dastaketa.

Abuztuak 7 Zumaia

Baserriko Produktuen Erakusketa egingo dute Zumaietan, eta marmitako txapelketa eta sagardo dastatzea.

Abuztuak 22 Lekeitio

Nekazaritza eta Artisautza Azoka. Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta izango dira eta sagardo eta haragi dastaketa.

Abuztuak 29 Elgoibar

Nekazaritza eta Abeltzantza Erakusketa, sagardoa dastatzeko eta herri kirolen erakusketa ikusteko aukera izango da.

Irailak 2 Bidegoian

Sardinak, sagardoa eta txakolina dastatzeko aukera.

Irailak 5 Donostia Euskal Jaia

Donostiako Sagardo Eguna ospatuko da Euskal Jaien barruan. 50 sagardo egile, 10.000 sagardo botila eta 7.000 baso. Gipuzkoako Sagardo Egile Elkartek eta Donostiako Kultura eta Turismo Bulegoak antolatzen dute.

Irailak 20 Hernani

Tolarea Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiak, Sagar eta Sagardo Eguna antolatzen du. "Zizarra" edo sagardo gozoa eta herriko sagardoa dastatzeko aukera izaten da, eta sagar mota desberdinen erakusketa, sagar bil-tzea eta tolare zaharreko instrumentuen erakusketa.

Irailak 26 Irura

Sagardo Dastaketa festetan.

Urrian, Ezkio-Itxason

Igartubeiti Baserrian museoko Sagardoaren Astea ospatuko da Ezkio-Itxason. Tolarearen martxajartzea, sagardoaren elaborazio prozesua, dastaketa, Kortabarria

familiaren antzezlanak eta sagar erakusketa ikusgai izango dira.

Urrian, Eibarren

Eta Kitto elkartek Eibarko Sagardo Eguna antolatzen du.

Azaroak 14 Ermua

XX. Nekazaritza Azoka ospatuko da Ermuan. Bertan, fruitu, barazki, gazta, ezti, ogi, sagardo eta txakolin onenen lehiaketa izango da.

Azaroan, Baionan

Lurrama Azoka ospatzen da Baionan eta bertan, sagardo dastaketa egiten da. Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen laguntza jasotzen du.

Azaroan, Arizkunen

Kirikoketa Besta ospatzen dute Arizkunen. Bertan sagardoa tolare zaharrea egiten dute eta sagar muztioa dastatzen da. Jo ala Jo Taldeak antolatzen du.

Abenduak 6 Errezil

Errege Sagarra edo Errezil-Sagarraren Eguna ospatzen da Errezilen. Bertan errezil-sagarra eta bere deribatuak (postreak, sagardoa, etb.) saltzen dira. Azokaz gain, sagardoaren elaborazio prozesua egiten da.

Abenduak 13 Usurbil

Santo Tomas azokan Babarrun eta Sagardo Lehiaketa ospatzen da.

Abenduak 26 Zestoa

IX. Gazta eta Sagardoaren Lehiaketa ospatzen da.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

elkarrizketa



SAGARDOAK ERE BADU BERE HIZTEGI PROPIOA

LIBURUAK ARAKATU, SAGARDOGILEAK ELKARRIZKETATU EDOTA GERTUKOENGANDIK IKASITAKOREKIN, BOSTEHUN HITZETZ OSATUTAKO EUSKARAZKO SAGARDO HIZTEGIA KALERATU DUTE URKIRI SALABERRIA ETA MIEL JOXE ASTARBEEK. GALBIDEAN ZIRENAK, KONTZEPTU BERRIAK... DENETARIK AURKI DEZAKEGU, BETI ERE SAGARDO EKOIZPEN PROZESUARI ETA DASTATZEARI LOTUTAKOAK, TXOTX GARAIAN SAGARDOTEGIETAN BALIATU IZAN OHI DIRENAK, ATZO ETA GAUR... A-TIK Z-RA.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

elkarrizketa



NOAUA! Bostehuneko zerrenda osatu duzue. Sagardo mundua oso aberastzat jo liteke, erabili izan ohi diren hitzei dagokienez?

Miel Joxe Astarbe. Bostehun hitz jaso dira eta hau hasiera baino ez da. Hitz guztiak ez daude hiztegi-gian bilduak. Herri batetik bestera aldaketak daude hitz askotan. Guk hemen bertan era batera esandakoak, Lasarten beste modu batera izendatu ohi direnak edota Hondarribian beste izen batekin erabiltzen direnak jaso ditugu. Alor honetan mundu bat dago.

N. Hiztegiak egitura berezia du, ezta?

M. J. A. Sagar loreak bost petalo ditu eta horri jarraituz, bost ataletan banatu dugu liburua; sagar biltzea, zanpatzea, irakitea, edatea. Orden bat jarraitu dugu. Atal horiei, amaieran, "herri baten erroak" izeneko txertatu diegu.

N. Sagardoaren ekoizpen prozesuko hitzak nagusitzen dira zuen hiztegi-gian?

M. J. A. Tresneria guztia. Hitz asko sartu ditugu, baina oraindik dezente falta dira. Teknologia ere asko aldatu da eta horrek ere hiztegia baldintzatu du.

N. Hitz bilketa lana egiteko, ikertu beharra izango zenuen. Zu zeu ere informazio iturri izan zara?

M. J. A. Ni berez, sagardotegi, dolare eta sagastiak izan dituen baserri bateko semea naiz. Mutil kozkorretan gordeketa jolasten ginen. Non gordeko eta, dolare ertzean, kupela barruan... Orduan ikasi nituen lehen hitzak. Gero gaztetu nintzenean aitak



ASTIGARRAGAKO MUSEOAK ARGITARATU DU SAGARDOAREN HIZTEGIA.

anaiari eta niri esaten zigun, "osaba sagar biltzera doa eta lagundu beharko diozue". Lehengusuekin sagar biltzerakoan ezagutu nituen sagar motak. Gero, sagar bat jaten hasita, zapore hitzak; garratza, gazia, geza, mikatza... ikasi nituen. Aitak esaten zigun sagar jotzera zihoazela eta joateko laguntzera. Hor ere ikasi nuen hitz mordoak. Lehenbizi buruan biltzen joandako hiztegi hori guztia, gero idatzi egin nuen. 1983an, Astigarragako aldizkarirako lan bat osatu nuen, bertako sagardo munduari buruz. Hor txertatu nituen hiztegi-giko ehun hitz, 56 sagar mota eta hamar zapore hitz. Aldez aurretik, garai bateko sagardotegietan egindako elkarrizketetan jasotako istorioetatik hitz batzuk jasoak nituen. Esate baterako, "mama".

N. "Mama goxua"?

M. J. A. Mama hitza halako

elkarrizketa batean jaso nuen. Garai batean Arantzazuko fraide bat sagardotegi batera etorri zen. Izugarriko beroa omen zegoen eta baso bat sagardo eskatu omen zuen. Eman zioten eta "hau mama goxua" zioen. Eta gero beste bat edan zuen, eta beste bat, eta kristoren atxurra harrapatu omen zuen. Hori guztia sagardotegi bertakoak kontatu zigun. Bestalde, aitari galdera asko egiten nizkion, sagardotegi-giko semea baitzen. Osabak zuen sagardotegia, eta bera elkarrizketatu nuen, sagar mota gehiago ezagutzen zituen jakiteko. Horrela argitaratu nuen 1983ko hitz bilduma.

N. 1983an egindako ehunetik gora hitzen bilduma hura, oraingo lanaren aurrekari gisa defini liteke beraz?

M. J. A. Argitalpen honetako zuzendariak orduko lan hura nork egin zuen jakin eta deitu zigun.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

elkarrizketa



Hiztegia kaleratzeko asmoa zutela esan zidaten eta hitzak biltzen has-tea nahi zuten. Horrela hasi ginen. Bi urte inguru aritu gara lanean. Urkiri Salaberriak, zuzendariak eta hirurok bilera mordo egin ondoren kaleratu dugu liburu hau. Askok lagundu digute.

N. Zuen argitalpenari esker, hitz batzuk ez dira bidean galduko.

M. J. A. Bai. Garai bateko dolareak eta egungoak zeharo desberdinak dira. Lehen dolareak egiteko erabiltzen ziren tresna asko, pixkanaka galtzen joan dira. Neure garai-ko hitzak, "fuertatxoa" adibidez, aitarengandik jasoa, aspaldi galdua zen. Azkeneko estualdiari ematen zaion zukua, hari deitzen zioten "fuertatxua". Hori neure baserrian. Hitz hori azaltzerakoan, Ergobiako gizonezko bat etorri zitzaidan eta hark esan zigun, bere garaian sagardoak ekoizten zutenean gauza berari "fortatxua" deitzen ziotela. Kilometro bateko tartean, gauza bera izendatzeko bi modu. Horregatik diot herri batetik bestera izenen artean, mundu bat dagoela.

N. Ba al dago hitzen bat, bereziki Usurbil aldean jasotakoa?

M. J. A. Lasarte aldean bai, "Kixkila" adibidez. Bertan idatzi zuten sagardoari buruzko liburu bate-tik atera nuen hitza. Hemen, sagarra biltzeko tresnari "kixkaya" deitzen diogu. Hondarribiako baserri batean, "Makota". Hiru izen desberdin. Eta Goierri edo Bergara aldera joanez gero, hor beste hiztegi bat egiteko moduan egongo ginatke.



ANTTON OLARIAGAREN IRUDIEKIN OSATU DA HIZTEGIA.

N. Txotx denboraldian, sagardotegira joan eta denok dastatutako sagardoak epaitzea gustuko dugu. Hiztegi hau eskutan hartuta, zeregin horretarako zer

hitz izan daitezke lagungarriak?

M. J. A. Bat "etorriya" litzateke. Hitz horrek zeresana eman du. Beti entzun izan dut "etorriya", inguruko herrietan; "sagardo hau etorriya

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

elkarrizketa



dago edateko edo botilaratzeko". Lagungarriak izan litezke baita, sagardo hau gozoa dago, ozpindua, mikatza dago, ona dator...

N. Bitxikeria moduan, atentzioa emateko moduko hitzik ezagutu duzu?

M. J. A. "Kaskabel", norbait mozkortzen denean erabiltzeko hitza da. "Hori kaskabel dago". Liburua kaleratu eta gero, Zapirain sagardotegikoak bere aitonari entzundako beste hitz bat aipatu zidan; "agostoketak".

Sagar bilketa noiz hasten zen erreferentzia egiteko erabilitako hitza zen. Sagar biltzen, abuztuan hasten zirelako.

N. Eta ezusteko asko izan duzue bilketa lana egiterakoan?

M. J. A. Txalaparta hitza esate baterako hiztegian txertatu dugu. Duela hilabete batzuk, Juan Mari Beltranek esan zidanez, txalapartari lotutako lehen datua 1880. urteko sagardo liburu batetik aterata dago. Bertan gogorarazten denez, sagardo ekoizpen lanak bukatzen zituztenean, txalaparta jo eta irrintzia botatzen zuten. "Bandua" hitza ere hiztegian dator. Garai batean, kupelaren bat irekia zegoela jakinarazteko bandoa baliatzen zen.

N. Bereziki nori zuzendua dago zuen lana?

M. J. A. Ez da asko salduko den liburu bat. Gehienbat, ikastola edo AEK euskaltegiatarako egina dago. Ariketak egiteko. Hogei urte barru, beste bat argitaratu beharko da, osatuagoa.

N. Belaunaldi desberdinetan erabili ohi diren hitzak jaso dituzue. Zer nolako eboluzioa izan dute?

M. J. A. Hitz asko desagertu dira. Dolarea izendatzeko adibidez, lehen 30 hitz erabiltzen baziren, gaur egun bi hitz soilik. Hitzen galera gertatu da. Baina bestalde, batez ere enologia alorreko hitz asko daude, garai hartan ez zeudenak. Gaur egun, enologia aurrera doa

eta hitz berriak sortzen ari dira. Ardogintza alorretik datoz asko.

N. Aurtengo sagardoa dastatuko zenuen. Hiztegia eskutan, nolako iruditu zaizu?

M. J. A. Urtero bezala denetarik dago. Onak, ez hain onak, kaxkarrak, denetarik. Produktu ona behar dute sagardo ona ekoizteko. Horretarako lehen gauza, sagar ona izatea.

HITZAK EZAGUTU

ETA ERABILTZEKO EGOKIA

Sagardoari lotuta erabili izan ohi diren hitzak ezagutu eta erabiltzeko aukera ematen duen gida liburua Sagardoetxea Museoa, Astigarragan eskura daiteke, edo www.sagardodenda.com web orrialdean, 4,81 euroren truke. Nahi duenak gainera, ikasitakoa igande honetan Usurbilen ospatuko den Sagardo Egunean praktikan jar dezake. Sagar motak, sagarra ekoizteko erabiltzen den tresneria, sagardoaren ezaugarriak... Asko dago ikasi eta ezagutzeko.

SAGARDO HIZTEGIA

Egileak: Miel Joxe Astarbe, Urkiri Salaberria.

Marrazkilaria: Antton Olariaga.

Argitalpena: Sagardun Partzuergoa.




MIEL JOXE ASTARBEK ETA URKIRI SALABERRIAK OSATU DUTE SAGARDOAREN HIZTEGIA.

pil-pilean



SAREAN ERE, SAGARDOA SALGAI

Interneten eskura dagoen denda honetatik, Sagardoetxea museoak banatzen dituen produktu guztiak daude eskuragarri: edariak (sagardoak, muztioa, likoreak eta pattarrak), delicatessen produktuak (bonboiak, sagar dultzea, gazta, intxaurreak, eztiak eta ozpinak), tresneria (edalontziak, txarroak...), edota ehunak (gizon, emakume eta haurrentzako kamisetak). Helbidea, oso erraza: www.sagardodenda.com



SAGARDOAREKIN LOTUTAKO EDARIAK ERE EROS DAITEZKE WEBGUNE HONEN BITARTEZ, BAITA SAGAR MUZTIOA ERE.





Ondo pasa
Sagardo egunean
eta txukun ibili!

ARDI BELTZ GARAGARDOTEGIA

- Entsalada bereziak • Plater konbinatuak
- Eguneroko menuak • Asteazkeneko menuak
- Bokadak eta raziak • Inportatutako garagardoak.

Puntapax 12 • USURBIL • ☎ 943 367 054

UNIBELI LARRASAGA BIZTETIA, ERUSTIA.

- Espetxe gela baxerentzat.
- Gaituramenduak (10 unuz 37€)
- Hainbat erretze eta gaituramenduak.
- Auzoak eta erretzeak.
- **FOTO DEPILAZIOA**
Brazoak eta gaituramenduak.
- Hainbat erretzeak.
- Hainbat erretzeak eta gaituramenduak.
- Hainbat erretzeak.

Leialde gaituramenduak
Sagardo txukunak!

Iratsu kalera, 12-kochea
☎ 945 362 887

Ondo pasa
Sagardo Egunean

JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008

egitaraua



SAGARDO DASTAKETA

Ostiral honetan, maiatzak 22, sagardo dastaketa egingo da Artzabalgo jatetxean. Mikel Garaizabal enologoaren eskutik, sagardoa hobeto ezagutzeko aukera izango da. 20:00etan hasiko da dastatzea eta, jarraian, afaria.

Honako menua dastatuko dute afarian: ahate "mousse"-a, onddo nahasia, legatza saltsa berdean, saiheskia patata eta piperrekin, postrea. Edaria eta kafea barne, guztia, 25 euroren truke.



DASTAKETA OSTIRAL HONETAN EGINGO DA, MAIATZAK 22.

TXARTELAK AURRETIK EROSI BEHAR DIRA.

**xarma
taberna**

ollaskoa eramateko
eta bertan jateko
karaokea
Wi-Fi zona

Xarma Taberna
Borda Berri kalea, 3 - Usurbil - ☎ 943 36 87 71

MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO
PINTURAK**

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

Ondo pasa jaietan!

Kale nagusia 1
943 366 019 • 943 363 460

Tel.: 943 36 27 35

TXIKIERDI

JATETXEA TABERNA

Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia

TXIKIERDI AUZOA LISURBIL



URDAIRA

Sagardotegia

Sagardo naturala

Aginaga
943 37 26 91



URDAINTZI S.L.

Igeltseritza

*ondo pasa
Sagardo egunero!*



943 367 264
649 435 475
649 435 476

Uda pasa Sagardo egunero!

izagirreletrizitatea@hotmail.com

izagirre

ELEKTRIZITATEA

Orri 51/1 anexo. 37 Interni
Tel: 943 37 30 91
Mugimena: 800 018 111
Fax: 943 37 45 87

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



Goizean zehar:

Frontoian eta Dema plazan,
sagardogileen 45 postu jarriko dira.
Askatasuna plazan pintxoak salgai egongo dira.

Hasiera ekitaldia albokari eta trikitilariekin.

Sagardo botatzaileen txapelketa.

Bazkalondoan, txaranga: "Jun da jo".

Erromeria frontoian: Ostolaza eta Pujana.

Antolatzailea: Sagardo Egunaren Lagunak.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



Otar-Goxo
E r i k a g a i a k

Ondo pasa Sagardo egunean!!!

Zubiaurrenea, nº2 • 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera

udajolas

udaleku irekiak

4-12 urte (HH3-LH6) bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago.

Uztailaren 6tik 29ra

Ordutegia: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 95 umekoa izango da. Lehendabizi inskribatzen diren 95ak onartuko dira, ez gehiago.

Izen emateko epea: **maiatzaren 20tik 29ra** (biak barne), astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara, NoauaIn.

Izen ematerakoan, ordainagiriaren kopia eta izen emateko orria ekarri behar dira.

Lekua: Noauaren egoitzan.

Kuota: 72€

Famili ugaria: 60€

Ordainketa **EUSKADIKO KUTXA**ko kontu honetan egin eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:
3035 0140 34 1400025811



Noaua !!
www.noaua.com

Usurbil
euskaraz ibaz da



Usurbilgo Urtulua

PUBLIZITATEA

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

pil-pilean



ESPETXEAN DIRENAK GOGOAN

Urtero bezala, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo da Sagardo Egunean. Beti bezala, frontoi atzean bilduko dira, Usurbilgo presoen eskubideen aldeko herritarrek deituta. 13:00ean hasiko da elkarretaratzea.



USURBIL
OPTIKA

Audifono personalizatua.
Uretako tapoiak.
Eguzkitako betaurrekotan
beherapenak.

Zubiaren 10 ☎ 943 370 269

FISIOTERAPIA ZENTROA



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Faxa: 943 370 306
fisiobaiondo@gmail.com



Ondo pasa
sagardo egunean!!

Mota guztietako errotuloak

Ibilgailuak -Erakustokiak
Pankartak - Kartelak ...

kale Nagusia, 10 · Tel/Faxa: 943 36 60 21



✓ Depilazio iraunkorra
✓ Radiofrekuentziaren
bidez gaztetze tratamendua

Zubiaurrenea 4, USURBIL · 943 361 951



urtebetetzeko meriendak
ENKXAGUBIDEZKOTARTAK
SU-EGUREKO OGIA
OPILAK



Zubiaurrenea 4, 48100 Usurbil (Bizkaia)
Tel/Faxa: 943 36 60 21

edaritegia

BORDATXO

edaritegia

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

onda pasa
Sagardo Egunean !!

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42



Usurbilgo Udala

XXVIII
Sagardo
eguna
maiatzak

24

Sagardoaren
txinpartak **on**
egin dagigula
denoi!

 **Usurbil**
osasuna atez ate